

# GORROTO DELITUAK DELITOS DE ODIO



Orientazio sexuala eta genero  
identitateak (OSGI)  
Begirada orokorra

Orientación sexual  
e identidad de  
género (OSIG)  
Una mirada  
global



# ZER DIRA OSGIEN ONDORIOZ JAZOTAKO GORROTO DELITUAK?

Trago bat eta beste trago bat  
Gure kaletan barrena  
Ta piztea da alkoholak eta  
Sexu grinak dakarrena  
Zure elxera nere elxera  
Betiko gauzak aurrea  
Zure logelari sartu gera ta  
Hara hemen ondorena  
Argia zegoen itzalita ta  
Bertan biluztu naiz dena  
Ta bapatean piztu egin da  
Harri txiki xumeena  
Nere gerrira begira zaude  
Ez naiz uste zenuena

Estali arte izan dugunak  
Nahiko irri nahiko broma  
Ahorik aho pasa dugunak  
Gintonic barruko horma  
Bular pareta zut neukan eta  
Zuk eman didazu forma  
Galtza estuak nebiltzkin arren  
Ez takoi eta ez gona  
Hau ta hura naiz hartzen ari naiz  
Zenbait botika hormona  
Gizona eta andrea nauzu  
Ez andrea ez gizona  
Nere inon ez egon nahia ote  
Da zure ezinegona

Gizarte honen estereotipo  
Ta gizarte honen usteen  
Tranpan zu ari zera erortzen  
Eta hori ez dizut uzten  
Zuk badakizu nola zizelka  
Eta marrastu galtuzten  
Ze inporta du gaur ari banaiz  
Zure aurrean biluzten  
Eta neroni ni neu naizena  
Hori bakarrik gorpuzten  
Nere gerripe zintzilikako  
Desira ari da puzten  
Itzali zazu argia eta  
Utzi azalari ikusten



Edozein pertsonaren,  
talderen edo horien  
ondasunen aurkako  
delitu penalak dira.  
Biktima, lekua edota  
delituaren objektua  
bere sexu-orientazio  
edo genero-  
identitatearengatik  
hautatzen dira (OSGI).

Delitua egiteaz gain,  
kalte erantsi bat  
ere egiten da.  
Delitugileak  
mehatxu-mezua  
bidaltzen die  
biktimaren parekoei  
eta haren  
erreferentziarako  
kolektiboari,  
eurek ere berdina  
jasateko arriskua  
dutela adieraziz.

Gorrito-delituak  
tolerantzia eza eta  
aniztasuna ez onartzean  
oinarritzen dira.  
Pertsonen berezko  
duintasuna eta  
Giza Eskubideak delitu  
bidez ukatuta sortzen  
dira, aniztasun sozial,  
politiko eta  
kulturala baztertu  
eta ez onartuta.

OSGlen ondorioz  
jazotzen den indarkeria  
egunerokoa da, eta baita  
izaera globaleko  
giza eskubideen  
urraketa ere.

# GORROTO DELITUAK

## DISKRIMINAZIOA



### DISKRIMINAZIOA:

Pertsona edo talde batekiko jokabide ezberdindu eta kaltegarria da; hori dela eta, beste pertsonen **eskubide** eta aukerak **ukatu egiten dira**.

OSGlen ondorioz jazotzen diren GORROTO-DELITUAK:

**Orientazio sexuala eta/edo genero-identitateagatik** pertsona edo talde sozial baten aurka egiten diren **arau-hauste penalak dira**.

Diskriminazioa ez da gorroto-delituen jatorria. Biak, diskriminazioa zein gorroto-delitua, ondorio-efektua eta tolerantzia eza adierazten duten jokabideak dira; besteak beste, estigmatizazioa, difamazioa, segregazioa, bazterketa eta zirikatzea bezala.



# ALDERDI LEGALA ETA NAZIOARTEKO ESPARRUA



Babeserako legeen arloan aurrerapausoak eman diren arren, problematika ezkutatzek, aurreiritziek eta sentikortasunaren aldeko apusturik ez egiteak babes juridikoaren eraginkortasun eza dakarte.

Nahiz eta estatu askotako legislazioek Giza Eskubideen aitortpena eta babesa bermatzen duten —baita LGTBI biztanleriarena ere—, pertsona gehienek ezin dituzte euren eskubideak gauzatu.




Eragina duten faktoreak:

- Hainbat herrialdek ez dizkiete LGTBI biztanleei besteekiko legezko berdintasun-eskubideak bermatzen.
- Ez dute estatuek soilik jazartzen. Jazarpena komunitatean, familian, eskolan eta lan-eremuan ere gertatzen da.
- Horrelako ekintzek inpunitatea izaten dute.
- Indarkeria hau emakumeek pairatzen dutenean, inpunitatea handiagoa izaten da.

SEXU ETA GENERO  
ANIZTASUNA

## Nortzuk dira baztertuak?



Sexu eta generoari dagokionez, historian zehar inposatutako **heteroarauek** eta **sistema bitarrak** errealitatea modu bakarrean ikusteko aukera ematen dute, aurretik markatuta eta definituta dauden arau eta portaerazko jarraibideen bitartez. Sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspuntuaren arabera, pertsonek hautatzeko eta erabakitzeak gaitasuna dute euren sexu eta generoari dagokienez. Sexualitatea eta afektibotasuna bizitzeko, eredu bitarretik eta heteroaraunitik haratago joaten diren hainbat modu daude.

Gainera, ikuspuntu honek jendartean "normala" dena aldatzen du:  
alua izatea, emakume izatea, genero-adierazpen femeninoa eta gizonekiko desirak sentitzea;  
zakila dutenen kasuan, guztiz kontrakoa.

Binarismoak eta heteroarauek errealitatea sinplifikatu egiten dute, eta murriztu egiten dituzte generoa eta sexualitatea aniztasunean bizitzeko aukerak; sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspuntutik, berriz, munduan pertsona bezainbeste aukera daude.



# HONDURAS ETA NIKARAGUAKO TESTUINGURU ETA ERREALITATEA




## NIKARAGUA

2008ko uztailera bitartean sexu bereko bi pertsonen artean harreman sexualak izatea sodomiatzat hartzen zen eta kartzela-zigorra ezartzen zen. Gaur egun, zigor-kodeak debekatu egiten ditu arraza, genero, sexu-orientazio, desgaitasun, hizkuntza edo baldintza sozialen ondorioz gertatzen diren diskriminazioak; hala ere, LGBTI kolektiboak ez du segurtasun eta babesik sentitzen erakundeen aldetik.

## NIKARAGUA\_GERATERAK



## HONDURAS\_GERTAERAK



Kode Penal berrian, "identitate faltsu" kontzeptua barneratu nahi da, horrela, gizon edo emakume transak identitate-usurpazioagatik auzipetuak izan gaitzke, identifikazio-zedulako generoari ez dagokion izena erabiliz gero. Ez dago ez sexu-aldaketarako eskubiderik, ezta agiriak aldatzeko aukerarik ere.

Gainera, LGBTI diskriminazioaren aurkako legea egiten ari dira. LGBTI kolektiboek hori positibotzat hartzen dute eta ekintza inklusiboak bultzatzen lagunduko duela pentsatzen dute. Lege horrek transexualitatea, gazteria, lan-esparruak, etab. onartuko ditu.

## HONDURAS

Munduan LGBTI kolektiboari zuzendutako gorroto-delitu gehien gertatzen diren herrialdea da. Hori dela eta, arreta berezia jarri behar zaio.

LGBTI gaiak, oraindik, gobernu eta udal plan, proiektu, programa eta aurrekontuetatik kanpo geratzen dira, nahiz eta kolektibo zaurgarriari zuzendutako politika publikoak badauden, kapitulu batean aniztasun sexuala barneratzen duen Giza Eskubideen Akzio Plana, besteak beste. LGBTI kolektiboa hezkuntza edo lan-programetatik baztertuta, LGBTI pertsonen osasuna eta bizitza arriskuan jartzen dira, eta arrazoi ekonomikoak, segurtasun eza nahiz OSGIen diskriminazioaren ondorioz, emigratu egin behar izaten dute. Gaur egun, baldintza irregularretan alde egiten ari dira herrialdeetako.

# GUATEMALA ETA MEXIKOKO TESTUINGURU ETA ERREALITATEA

## GUATEMALA

Munduan, OSGlen ondorioz gorroto-delitu gehien gertatzen diren bigarren herrialdea da. LGBTI pertsonak, estatuaren bazterketa jasateaz gain, norbanakoena ere jasaten dute. Homofobia eta transfobia gizarte-egituraren errotuta daudela erakusten dute azken estatistikek; horren adierazle da Guatemala hirian bizi den LGBTI biztanleriaren %95 komunitate indigenetatik datozela (OTRANS), datu horrek kolektiboaren ezaugarri den errealitate mestizoarekin talka egiten du.

## MEXIKO\_GERTAERAK

1871 Homosexualitateak delitua izateari utzi zion, baina kode penalak "moralari eta ohiturei eraso" kontzeptu interpretagarria barne hartzen jarraitzen zuen.

41 marikoen dantzaldia. Etxebizitza bateko dantzaldian parte hartu zuten emakume eta gizonen aurkako sarekada.

1970 LGBTI mugimenduko lehenengo taldeak sortu ziren.

Nancy Cardenas, bere sexualitatearen inguruan publikoki hitz egin zuen lehenengo lesbiana.

1978 Lehenengo LGBTI martxa, Kubako erreboluzioaren alde. Hurrengo urtean, lehen aldiz osapatu zen gay harrotasun-eguna.

Diskriminazioa saihestu eta ezabatzeko Lege Federala. Ondorioz, Diskriminazioa saihesteko Kontseilu Nazionala sortu zen.

2008 Agirietan sexua aldatzeko aukera. \*2015ean prozesu judiziala izateri utzi zion eta tramite administratiboa bilakatu zen Mexiko hirian.

Ezkontza homosexuala baimentzen duen legea indarrean sartu zen.

1901

1973

2003

2010

## GUATEMALA\_GERATERAK

1871

Erreforma liberala. Homosexualitatea legeztatu zen.

Bake-akordioa.

1996

2006

Giza Eskubideen Politika Nazionala. Genero- eta jendarte-parekidetasun printzipioak ezarri ziren.

Latinoamerika eta Karibeko Lesbiana feministen VIII. Topaketak.

2008

2012

LGBTI politika publikoa eta instituzioen arteko mahai teknikoa. LGBTI erakundearen federazioaren sorrera (FOLGTBIG).

Aniztasun Sexualaren defentsarako bulegoa sortu zen (DDS).

2014

2016

Mugimenduan zeuden LGBTI pertsonekin lan egiteko gutxieneko estandarrak sortu ziren. Sandra Morán lehenengo lesbiana feminista diputatua.

LGBTI Giza Eskubideen VII. Kongresu Nazionala.

2017



## MEXIKO

OSGlen ondorioz gertatzen diren bazterketen aurka babesa bermatzen duten legeak daude. 13 estatutan bakarrik dago aukera ezkontza parekidea egiteko, adoptatzeko, ugaltze-teknikak erabiltzeko, sexu-aldaketa egiteko nahiz agiriak aldatzeko. Horrek garbi uzten du eskubideak desberdinak izaten direla bizilekua estatu batean ala bestean egon. Gainera, Mexiko gai hauetan Amerikan puntako lekua izan arren, OSGlen ondorioz gertatzen diren gorroto-delituak eguneroko ogia dira eta kolektiboaren aurkako jarrerak nabariak dira.

# EAE ETA ESTATUKO TESTUINGURU ETA ERREALITATEA

## GERTAERAK

1882

Kode penaletik sodomia ezabatu zen.

"Alfer eta gaizkileen" legea aldatu zen pertsona homosexualak barneratzeko.

1954

1970

Arrisku eta birgaltzeko legeak homosexualitatea arriskutsutzat hartzen jarraitzen zuen. Elkarte Homofiloa berdintasun sexualaren alde.

Lesbiana eta homosexualen lehen erakunde sozialak eratzen hasten dira (EHGAM, ESAM,...). LGBTiren eskubideen aldeko lehen manifestazioa.

1977

1979

Homosexualitatearen legeztatzea.

Lesbiana feministen elkarteak sortzen hasten dira. '83an Bizkalakoa, '85ean Gipuzkoakoa, eta '87an Arabakoa.

1980

1988

Bilbon lehen zine-maratoi gay-lesbikoa antolatzen da. Madriden berriz, Estatu mailako lehen Jardunaldi Lesbianistak.

Kode penalak orientazio sexualagatik babesa, gertaera bortitzak eta sexu-askatasunaren aurkako jarrerak pairatu dituztenei laguntza eta asistentzia sartu zituen.

1995

2005

Kode Zibilaren aldaketa, sexu bereko pertsonen arteko ezkontza baimentzen da, eta baita adopzio homoparentala ere.

Dokumentazioan sexu aldaketa onartzen da operatu behar izan gabe, hala ere, tratamendu hormonalak eta zertifikatu psikologikoak beharrezkoak dira.

2007

2009

Osakidetzan nahi duen pertsona transexual orok trantsizioa gauzatu dezake (hormonazioa eta operazioa).

Euskadin generoaren diskriminazio ezaren legea onartzen da eta pertsona transexualen eskubideak onartu. Transexualitatearen despatologizazioaren aldeko mugimendua.

2012



Euskadin eta Espainiako estatuan LGBTI kolektiboaren aurkako jarrerak areagotu egin dira azken urteotan.

Kasuen %86.7n, gorroto-delituen ondorioz atxilotutako jendearen profila hau da: 18 eta 40 urte bitarteko gizon espainiarra.



Bizkaia eta Gipuzkoa daude gorroto-delitu gehien gertatzen diren lekuen artean.

# GORROTO DISKURTSOAK

Arraza, xenofobia, antisemitismo edo tolerantzia ezan oinarritzen diren gorrotoak hedatzen, sustatzen edo justifikatzen dituzten adierazpen-mota guztiak; nazionalismo agresiboa eta etnozentrismoa, diskriminazioa eta gutxiengoezikiko etsaitasuna, etorkinak eta jatorri emigrantea duten pertsonak barne.

Gorroto-diskurtsoek bazterketa areagotzen dute eta sexu-orientazio nahiz genero-identitateagatik gertatzen diren gorroto-delituak eragiten dituzte.



## GENOZIDIOA

Herri baten exterminio sistematikoa

## BIOLENTZIA

**BAKARKAKOA**  
mehatxuak  
erasoak  
bortxaketak  
hilketa

**KOMUNITATEA**  
bandalismoa  
profanazioa  
terrorismoa  
suteak piztea

## DISKRIMINAZIOA

lanekoa  
ekonomikoa  
hezkuntzakoa

polikoa  
etxebizitzari dagokiona  
segregazioa

*\*Aurreritzez beteriko ekintzen, jarreraren, diskriminazioen eta biolentzien artean egon daitekeen harremana.*

## AURREIRITZIZ BETERIKO EKINTZAK

jazartzea  
aislatzea  
kanporatzea

iraindu  
goltizenak jarri  
lotsarazi

## AURREIRITZIZ BETERIKO JARRERAK

estereotipoak ontzat eman  
hizkuntza ez barneratzailea  
txantxa mingarriak

sentsibiltaterik gabeko alipamenak  
identitatean oinarritua norbait kulpatu  
soilik informazio negatiboa onartu

# GORROTO DELITUAK ZENBATZEA



## ACTUALIZACIÓN TMM • DÍA DE LA MEMORIA TRANS 2016

# 2264

asesinatos de personas trans y género-diversas registrados en 68 países del mundo  
(1 enero 2008 - 30 septiembre 2016)



### Números absolutos



### Números relativos

(número de asesinatos registrados por millón de habitantes)



© 2016 Observatorio de Personas Trans Asesinadas (TMM) de Transgender Europe  
Más información en [www.transrespect.org/es](http://www.transrespect.org/es)



Jasotako salaketek  
icebergaren tontorra besterik  
ez dute erakusten.  
Hainbat arrazoi  
direla-eta, ezinezkoa da datu  
fidagarriak lortzea:  
bazterketaren normalizazioa,  
babes-sistemarekiko  
mesfidantza, erasoak, LGBTI  
kolektiboaren estigmatizazioa,  
etab.

Hori dela eta, ikusgarritasun  
eza eta arazoaren garrantzia  
eta larritasunaren  
kontzientzia falta izugarria  
gertatzen da. Era berean,  
modu egoki batean  
erantzungo duten politika  
publikoen gabezia dago.



# ZER EGIN DEZAKEGU?

## ESTRATEGIA PERTSONAL ETA KOLEKTIBOAK

Indarkeria-continuumaren aurrean, LGTBI kolektiboak etengabeko erresistentzia eta estrategiak sortu ditu indarkeria eta gorroto-delituei aurre egiteko.



### **"Bizirauteko ekintzak":**

segurtasun fisikoa babesteko neurri puntual eta berehalakoak.

### **"Aurre egiteko mekanismoak":**

aurre egiteko, jasandako indarkeriak izendatzeko, ondorioak onartzeko eta bizi-proiektuak berreraikitzeke egiten dira. Banakakoak eta kolektiboak izan daitezke.

### **"Eraldatzeko estrategiak":**

bizi-baldintzak eraldatu eta estereotipoak puskatzeko helburua duten ekintzak dira eta denbora mugatu batean egiten dira.

Sexu- eta genero-ordena puskatzen denean eta pertsonak cisheterosexualitatetik aldentzen direnean hasten da Erresistentzien continuuma.



# ESKERTZAK



DENA ONDO ZIHOAN ARGIA PIZTU DEN ARTE  
Maialen Lujanblorean kartzelako lana

QUE OTROS SEAN LO NORMAL  
Ariedoblebé eta Susy Shock

ETIQUETAS  
Ziortza Lloa

©ELDITU DEZAGUN AUTOBUSA  
Ecuador Etxea

EDUKIEN ITZULPEN  
ETA ZUZENKETETAN  
LAGUNTZAILE  
Marian Urkizu

DISEINUA  
ARKAMI



Kooperaldarte

